



Etxaburu dorretxea (Izurtza)

Etxaburu dorretxea Bizkaiko ezagunenetakoa da, duen kokapen berezi eta irudi ikusgarriagatik zein bere jatorriaz kontatzen diren legenda fantastikoengatik.

Mañaria errekaaren parean doan ibar estu baten hondoan babestuta, harkaitz garai baten gainean altxatzen da. Haitzaren altuerak dorretxearen berarenarekin batera Etxaburu talaia bikain bilakatzen du, inguru guztia menperatzen duelarik, Durangotik Mesetara Urkiolan zehar igotzen zuen galtzada zaharra barne.

Arestian esan bezala, Etxaburu dorretxearen jatorria legendan bilduta dago. Esaten da Antonio Pio (138-161 urteak) enperadore erromatarraren garaian, gordelekua Etxaburuko harkaitzetan zeukan basurde batek inguruak txikitzen ziharduela. Lope de Ondino zalduna ausartu zen piztziari aurre egiten, lantza batez armatuta eta ehiza txakurraren laguntzarekin soilik. Basurdea akabatu ondoren, jatorrizko Etxaburu dorretxea eraiki zuen animalia gordelekuaren gainean. Gertakari hau bere leinuaren armarrian bildu zen, bai eta Izurtza udalerriarenean ere. Legendak dioenaren arabera, Ataulfo errege bisigodoaren garaian (410-415) dorretxea eraitsi zuten, baina berehala eraiki zuten berriro. Ia mende bat geroago, bertako seme bat, Juan Etxaburukoa, Gesaleico (507-511) errege bisigodoarekin izan zen Narbona setiatzen.

Etxaburu familiari buruzko lehen albiste sinesgarriak askoz beranduagoak dira. Dirudienez Durangoko Ibargoendarren ondorengoak ziren, baina bertara bizitzen jarriak XV. gizaldiaren erdialderako. Une horretan Juan Perez Etxaburukoa erregearen basailu gisa agertzen da haren zerbitzaria zen gerrateetan soldata baten truke-eta San Nikolas parrokiaren zaindaria zen -hamarrenak kobratzen zituen-.

Ordurako ba ei zegoen dorretxe bat, apur bat beranduago noble leinukideen jardura bortitza amaitzeko erabakien artean Bizkaiko Ermandadeak eraitsi zuena, euren gotorlekuetatik mota guztiko bidegabekeriaren azpian hartzen baitzuten gaineko biztanleak.

Dorretxea XVI. mendearen hasieran berreraiki zuten Sancho Lopez de Ibargoenek eta haren emazte Estibaliz Etxaburukoak, dorretxeak orduan hartu zuela gure egunetara, aldaketa handirik gabe, iritsi zaigun itxura.

Eraikina

Etxaburu dorretxea planta oso angeluzuzena da. Arestian esan bezala, harkaitz baten gainean dago eraikita, honen irregulartasuna arku bati ezker gaintitzen dela, zeinak eraikinaren azpiko tunel bat sortzen baitu, eraikinaren elementurik ikusgarrienetakoa.

Bere horma lodiak -metro bat baino gehiago oinarrian-, harlangaitz angeluzuzenak dira, nahiko kalitadedunak, angelu eta atearen eta leihoen markoetan harlanduz indartzen delarik.

Dorretxearen sarrera bakarra erdiko altueran dago, beheko eta lehen solairuen artean. Erdi-puntuko arkua da, irregular samarra. Bertara iristeko harrizko mailadi batetik (patin) igo behar da, plataforma batera ematen duena. Espazio hau hasieran garbi zegokeen, hormatxo batez babestua beharbada, zehaztugabeko data batean sarrera buruduna duen kasamata bat egin zen arte.

Barrura sartuta, bi altuera nagusi daude: behean sotoa eta lehen solairuan bizilekua. Arku zorrotzetan amaitzen diren leiho oso estuek argitzen dituzte areto hauek. Soilik Hego eta Ekialdeetan bizilekuko solairuak bi zulo apur bat handiagoak dauzka, balkoitxo batzuk edo. Bao guzti hauek oso modu desordenatuan zabaldua daude, barruko beharren arabera, eta inolaz ere kanpoaldeko simetria edo banaketa orekatua bilatuaz, Ekialdeko fatxadaren batez ere oso nabarmen gelditzen dena.

Dorretxe ia guztietan bezala, lehen solairua altuegia zen proportzioen aldean, bigarren leiho maila zabaldu egin behar izan zela, zorrotzak eta oso estuak ere, barruko aldea argitzen laguntzen zituztenak. Bizilekurako planta hauen gainean *ganbara* legoke.

Teilatua egun hiru isurialdekoa da, baina bere jatorrian laukoa izango litzateke, dorretxeetan ohi bezala. Bere neurritz handiko teilatu-hegala jabaloi batzuetan bermatzen da, zeinek, bere aldetik, hormen goialdean irteten diren harrizko mentsula batzuen gainean eusten diren

Testua: J. M. González Cembellín.



Etxaburu dorretxea

Izurtza. (*Ortuzar auzoa*).

Sarbidea:

Durango-Urkiola errepidean, Izurtza udalerrira iritsi eta Mañariaren mugarrin eskuinalderako seinale batek azaltzen digu dorretxearen bidea.

Bisitak egiteko ordutegia:

Ez dago bere barrukoa bisitatzerik.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(*Izurtza*)

- San Nikolas eliza.
- Bekotorre edo Izurtza dorretxea.
- Azpazar errota.
- Zabala oinetxea.
- Aranekoa burdinola.